

Ezin nuen ihes egin, etxean nuen hesia
erraietan ikararen hazia
non gorde ote nuen malezia
zuri itzultzeko jasotzen nuen pozoidun gezia.

Nire tinpanoetan garrasia
zure aisia
izu-dardarka ikusteak ematen zizun bizia.
Hori uste nuen zela maitasun egosia,
errukigabeko hitz jario sasia,
sasi-maitasuna, lizunkeriaz josia,
“maite zaitut, zure beharra dut” esaera eta ondorengo zaplazteko-luizia.
Nire gozamina ez zen nirea, baizik zuk erabakitako auzia,
zuk nahi zenuenean, ni zure gutzia,
menperatua ninduzularik bila ez nengilaren orgasmoa, klitoriaren primizia,
hire irribarrea, gizon-ankerkeriaren kodizia,
“ikusten, ni gabe ez haiz inor, nik ematen dinat disfrute guzia”.

Ez zenidan hitz egiten, baizik eta adausi,
indarkeriaz zenion “hi beti hago irausi,
beraz sexura oraintxe bertan jauzi!”
Eta nik hortz artean gauza bakarra negien ihausi,
“Jauna, noiz egingo didazu bizia inausi?”

Hormaren aurka hiru bultzada... lurreko hautsarekin nire odola nahasia,

zoru gainean nire gorputz biluzia,
izatea bera erauzia,
Jaunari erregu egin nion, “emadazu hiltzeko grazia,
ez dut horrelako ezer merezia”.

Konortea galdu nuen, iluntasuna bai lagun berezia,
“Jauna, emadazu betiko atsedena, bete ezazu profezia”,
heriotza nuen Biziak eman ziezadakeen onezia.

Begiak irekitzean, hori ez zen nire eguneroko tortura-heia,
ezberdina zen sabaia,

Ba ote zitekeen? Egina ote nuen zeruranzko bidaia?

Usain bat, oroitzapen goxo bat, amak egindako aia,
gosaria nuen ondoan, bizirik nirauen, akabo ezbaia.

“Bizilagunek egin dute telefono deia,
lazgarriegia izan omen da zure aieia!”

Sendagilea nuen hizketan, Mireia,
“Ospitalea izango duzu egunotan zure etxea, Ortzeia,
Bizi irautea ez da izango aurrerantzean zure lehia”.

Aspaldiko partez jaso nuen lehen adeia,
negar malkoek urtu zidaten bihotza, eginda bainuen leia,
lehenengo z pasa zitzaidan burutik, bitzta beste era batekoa litekeela ideia.

Nik ez nuen hartu nire bidea jorratzeko eskutan laia,
ezta belar txarrak mozteko igitaia,
eskerrak bizilagunek ez zutela ezkutatu haien bisaia.

Mireia, nire maite alaia,
alboan izan zaitut ordutik, ene kuraia,
Zuk didazu irakatsi duintasunaren gaia,
eskaini eztiki begirunezko hizkera galaia,
ekarri berriz bizitzeko nahia,
arintzen joan dakidan senarrak burutik behera ezarritako oinaze-uztaia.
Maite zaitut, Mireia, eraiki dezagun maitasun-talaia,
bertatik mundua berdinen artean ikusteko badugu eta garaia. (53)